



**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko,
Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako
Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra
(DBHHBLH)**

Eskaintza erdi-presentziala

www.ueu.es/ikasi/masterra

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra (DBHHBLH)* eskainiko du 2020-21 ikasturtean **euskaraz** eta **online**. Honako espezialitate hauek eskainiko dira:

- **Natur Zientziak eta Matematika**
- **Giza eta Gizarte Zientziak**
- **Hizkuntza eta Literatura**

Masterraren antolaketa orokorra ondokoa izango da:

Modulu generikoa	Modulu espezifiko	Practicum	Master Amaierako Lana
Formazio psikopedagogikoa	Espezialitate bakoitzeko formazio didaktikoa	Praktikak hezkuntza zentroetan	
18 ECTS	24 ECTS	12 ECTS	6 ECTS
Erdi presentziala	Erdi presentziala	Aurrez aurrekoa	Aurrez aurrekoa

Espezialitate bakoitzean, **40 ikasle** onartuko dira gehienez, hau da, **120 guztira**.

Online eskaintza eta Berrikuntza Ikasgelan

Modalitate honetan, eskolak **Ikasgela Birtualaren** bitartez emango dira. Bertan, ezarritako konpetentziak jaso eta garatzeko beharrezkoak dituen material didaktiko eta osagarriak eskura izango ditu uneoro ikasleak. Aldi berean, Ikasgela birtualak, ikasketak garatu eta ebaluatzeko behar dituen tresna eta baliabide guztiak eskainiko dizkio ikasleari.

Bestetik, **Berrikuntza Ikasgelan** ardatz duen hautazko ibilbidea proposatzen da espezialitate bakoitzean. Irakasgai honek 6 ECTStako iraupena du eta espezialitate bakoitzeko berrikuntza eta ikerkuntzako moduluan eskainiko da hautazko ibilbide moduan. Irakasgaia hezkuntza zentroan garatuko da, zentroaren beharrei egokiturik, eta modu praktikoan. Ibilbidearen ezaugarriak direla eta, behar duen jarraipen egokirako, 10 ikasle soilik onartuko dira espezialitate bakoitzean.



**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko,
Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako
Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra
(DBHHBLH)**

Eskaintza erdi-presentziala

www.ueu.eus/ikasi/masterra

Norentzako da egokia modalitate hau?

Ikasketak gauzatzeko interesa izan arren, maiztasun jakin batez fisikoki hurbil ezin daitekeen ikaslearentzat erakargarria izan daiteke modalitate erdi-presentzial hau eta aukera berriak irekitzen zaizkio. Egun, Unibertsitate Publikoan, baldintza hauetan egin daitekeen euskarazko titulazio horren eskaintza bakarra da (EAEko bere ibilbide profesionalean kurrikularra izango duen hizkuntza izanik). Nafarroako zein Ipar Euskal Herriko euskal hiztunentzat ere aukera gehigarri bat izango da.

Matrikula

Matrikulatzeko epea **2020ko apirilean** zabalduko da

Kontaktua

Masterrari buruzko informazio eguneratua:

www.ueu.eus/ikasi/masterra

Argibide gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: a.astigarraga@ueu.eus

Prezioa

3780€ (gutxi gora beherako prezioa)

Eskaintzaren ezaugarriak. Laburpena

- Formazio **jarduera sinkrono eta interaktiboak eta beste online jarduera batzuk** konbinatuko dira.
- **Praktikaldiak, aurrez aurrekoak** izango dira hezkuntza zentroan.
- **Euskaraz** izango da.
- **Plaza mugatuak** izango ditu: espezialitate bakoitzeko 40 gehienez (eta bakoitzean 10 gehienez berrikuntza ibilbidean)
- Konpetentzien barneratzea bermatzeko jarduera zein ebaluazioa egokitu da, modalitate berrirako.
- Aurrez aurreko modalitatean egiten den antzera, eta ikaslearen hizkuntza gaitasunak sakontzeko asmoz, espezialitate bakoitzerako hautazko **ikasgai bat ingelesez** eskainiko da.
- Espezialitate bakoitzean, **Berrikuntza Ikasgelan** irakasgaia eskainiko da. Espezialitate bakoitzeko 10 ikasle gehienez onartuko dira eta hautatua den ikasleak, irakasgaiaren 6 ECTSak, aurrez aurre eta modu praktikoan, hezkuntza Zentroan gauzatuko ditu (ondoren *practicuma* burutuko duen zentro berean). Ikasle hauek bertan garatu beharreko proiektuaren aukeraketan, ezinbesteko pisua izango du Ikastetxeak.